

GASTEIZKO URREZKO DOMINA HENRIKE KNÖRR-I

*Manu Ruiz Urrestarazu,
Arabako ordezkaria*

Gasteizko Udalak urtero eta Gasteizko zaindari den Andre Maria Zuriaren egunean, abuztuaren 5ean, ageriko ekitaldi bat antolatzen du eta bertan hiriko alkateak iraganeko urtearen oroitza orokorra egiten du eta datorren aldirako aurrikuspena zabaltzen du, nahi egokiak eta proiektu nabarmenak agertuz. Udalaren bizitzaren osagarri eta hiri osoaren ohoragarri, urte horretarako lehendik Udalak izendatu duen hiriaren urrezko dominadun izateko pertsonari ematen dio domina.

Aurten, 2008an, bi pertsona izan ziren hautatu urrezko domina hartzeko gai: Henrike Knörr Borràs gure euskaltzaina, eta Amelia Baldeón Iñigo arkeologoa. Lehenengoa, gure Henrike maitea, hil ondorengoa.

Igarotako azken urteetan halako ekitaldia *Zulueta* jauregian egiten zen, Florida parkearen ondoan, hiri erdian, baina Gasteizko Udalak Salburuko «Ataria» deritzan naturaren interpretazio zentroa ezagutarazi nahi zuela-eta, «Ataria» delako horretara aldatu zuen ekitaldia.

«Ataria» interpretazio gune hori Salburuko aintziren iparraldean dago, hango hezeguneen gain-gainean eta ikusgarri gertatzen da benetan. Kanpotik datorren jendearentzat ere hara iristea eroso da. *Buesa Arenaren* ondoan aurkitzen da, hiriaren zirkunbalaziotik gertu, barruko alderantz.

Baina ez omen dago arrosa arantzarik gabe. Ekologia arauak agintzen duenez «Ataria»-k ez du aire egokiturik eta egia esan orain arteko ipar eta erdiko euskal hirietan soberan dago aire egokitua, baldin eta airea era naturalean berriztatzen bada.

Halabaina, eta ingurumenaren aldetik begiratuta gainera, egun egiten diren eraikin mordo batek aje komun bat badu. Eta da: leiho itxiak izatea, leihoak ezin zabaltzekoak. Eta eraikinaren frontisean leiho batzuk kenduz gero, horrelako itxitura gertatzen da «Ataria»ren barruan ere. Abuztuaren 5ean, 34 °C-ko beroa zela-eta, «Ataria»n bildu eta itxi ginenok hor murgildu ginen, atmosfera estu horretan, gure izerditan garunak egosten.

Patxi Lazcoz Baigorrik, Gasteizko alkate denak, hitzaldi oparoa eskaini zigun, hasieran euskaraz eta gero gaztelaniaz, hango tokian aproposa zen in-

gurumenari buruzko burutazio aberatsak opatuz. Behin Gasteizen igarotako urtean egindako lanak aipatuz eta hurrengo aldirako bete beharko ziren proiektuak plazaratuz, Gasteiz Euskadiko hiriburua zela gogoratu eta aldarrikatu zigun, Gasteizko Udalekoetatik aparte hor zeuden Euskadiko beste erakundeen ordezkariak ere kontuan izan zezaten. Lazcoz Baigorri jauna bere sorkuntzaz kaskagogorra zela ziurtatu zigun eta denok Euskadiko hiriburuaren zidor zintzotik joateko inbitatu gintuen.

Gero Alkateak berak omentzen genituen bi pertsonen *kurrikuluma* gorai-patu zuen eta hitza eman zien omendutakoei beren agerraldia bilduen aurrean egiteko.

Lehenbizikoa Henrikerena izan zen. Txari Santiago, beraren emazte maitea izan genuen gure aurrean. Orduan bertan harekin batera Henrikeren pertsona ikusten genuen arimaren begiekin. Ekitaldiaren momentu gogoangarriena izan zen hura. Txari Santiago, ahots gozo eta sentipenez beterik, Henrikeren nondik norakoaz mintzatu zitzaigun. Knörr-Santiago bikotearen duintasuna eta dotoretasunaren eredu gertatu zen hitzaldia. Henrike gizatasunean eta euskaltzaletasunean eredugarri genuenontzat hitzaldi sentibera eta betea. Hitzaldi mamitua eta ederra.